

EUSKALDUNOK KANPOTIK

1.- Mendiarteak uzten ditugu

Euskaldunetarik asko, mendiak inguraturik bizi gara. Begiak luzatzen ditugunean, beti dugu tontorren bat aurrean. Mendizaleak, aldapa igon behar duen txirrindulariak, pintoreak margotzen duen zeru gailurruak moldatu dute euskaldun askoren karakterra. Euskaldunon frontoia ere, zer da, ba, mendiaren maketa baino?

Mendi artetik espainarutzen garenean, ordea, ez daukagu zerua ikusteko begiak irauli beharrik. Gure eritzi, uste, kriterioak, mundu zabalean jokatzera bihurtuta aurkitzen dira. Kanpoan gaude.

2.- Euskalduna, bidaiaria

Inor izan bada bidaiaria, euskalduna izan da Ameriketako hainbat ardi dirateke horren lekuko. Institutuko irakasle den Karmen gernikarrak kontatzen zigun orain pare bat urte, bere gurasoek Indiara egin zuten bidaia. Hainbeste barau egiten duen jende haren artean, suge-hezlaria begiratzen geratu omen ziren behin. Eta bere amak esan ei zion senarrari, «diru apurtxu bat emoiizu eta goazen». «Ene, euskaldunak zatie?» «Ni Bermixokue nai». Suge hori otzarean zuen bermeotarrak ez zeukan dirurik etxeratzeko eta eskatzen ari zen.

Katalunyako itsas-bazterretan euskalduna ugari aurki daiteke Aste Santu garaian. Urteon turistatza handia joanetorri da

udalekuetara. Estadistikek, Costa Dorada %95eraino bete zela zioten. Eguzkia eder, landak udaberriko, udako kolorez neska mutilak. Gero, apartamendu ederraren barruan edan ezin den ura aurkitzen baduzu... Azeituna beltzak, ama, badauka hankarik? Ez, alaba! Orduan, kukaratxa bat jan dut». Gu, jatera ez ginen heldu baina adineko bat eta gazte samar bat garbitu behar izan genituen.

3.- Kotxean gora ETA

Goizean kalera jaitsi ginenean, hautsezturiko kotxea goraeztaz beterik aurkitu genuen. Apirilaren 21eko VANGUARDIAN, 1. orrian, «Los miembros de ETA «Macario» y «Carmen» del Comando Madrid regresaron a Argelia». Barruan H.B. eta Europako Parlamentua; Gernikako zaurituak eta Ertzantza; Herriarako ETAkoei zigorra; Brouarden erahilketa eta emakume baten testigantza agertzen ziren. Baina lehen orrialdean letra handiz, ETA. Apirilaren 22ko EL PERIODICO DE CATALUNYAK, 1. orrian, «Los Principes de Gales nos visitan entre dimes y diretes diplomáticos». Baina artikulua jarraipenean, 3 orrialdean, izenburu handiz «El heredero británico dijo que teme más al IRA que a ETA». Egunkari honetako «Cartas» sailean, «La condena del terrorismo» ETAk Bartzelonan egindakoaz.

Gaur eta munduko lurralde askotan euskaldunen arteko bizitza gaietatik ETA nabarmentzen da. Atsegin badugu nahiz ez badugu, ETA da euskaldunen bizigirotik egunkari askotako zuzendaritzarako interesdun berri bakarra. ETA bidez gara euskaldunok ezagun leku askotan. ETA sukarra bada, tenperaturaz arduratuko dira, baina gaisoa sendatzeak bost axola.

4.- Angel Suquia, Clemente, Guernica

Ez dugu esango Iñigo Loiolakoa ez dala mundu zabalean ezagun. Gertatzen dena, Espainiakotzat hartzen dela eta ez Euskal Herriko semetzat. CATALUNYA CRISTIANA. Setmanari Popular D'Informació I de Cultura Religioses» aldizkariko lehen orrialdea, argazkiz, L'arquibisbe de Madrid, a la presidencia de la Conferencia Episcopal Espanyola» (Ez dezadan ahaztu, al-

dizkari osoa zetorrela katalan hutsez, kale izen guztiak bezala, itzulpenik gabe). «... va naixer el 2 d'octubre de 1916 a Zaldibia (Guipuscoa)» zekarren. Euskaldunok goraipatuz Angel Sukiarekin batera, gainerako aldizkarietan, Clemente entrenatzailea zen euskaldunik aipatuena. Picassoren Gernika 50. urteurrena, Europan ezagun badira ere, egun haietan oraindik aipamen hutsak azaltzen ziren kazetetan.

5.- Euskaldunon janzkera eta hizkera

Gero eta nekezago ikusiko badugu ere, euskaldunaren aurpegikera nahiz janzkera ezagun dira Mediterraneo hegoaldean. Eta hori, zenbait arrazoiengatik. Gaztelako herrietatik etorriak, gehienetan, euren lurretara itzultzen dira udatean, Penintsulako erdialdera. Ondorioz, betiko euskalduna da maizenik mediterraneoratzten dena. Corte Ingelesko arduradunak zecuan gogoan behin, zelan hemen eta Sevillan ezin diren kolore bereko erropak salgai jarri. Badu euskaldunak oraindik, nolabaiteko janzkera propiorako joera. Gure amak esango lukeen «erropa sufridua» erabiltzeko ohitura.

Baina euskalduna, ahoak salatzen du bereziki. Euskaraz ari zarenean, ez da zalantzarako tokirik. Ez da, matrikula, janzkera edo musu gorrietara so egin beharrik. Euskaraz dabilena, hondartzako eguzkizala orerentzat «Es vasco» «Son vascos». Zertarako galde zerk egiten gaituen euskaldun!

Euskadiko erdaldunak ere, ordea, espainolez mintzatu arren, mihiak salatzen ditu. «Has terminau» «Quita de ahi, cagüen zoz!» eta antzerako esakunek beti nabarmenduko dute baskoa. Badakite katalunyarrek Euskadiko espainol mota darabiltela.

Guk euskaldunok, berriz, norbait euskaraz entzuten dugunean, badakigu zein herritakoa den ere, euskaldun berrien kasuan ez bada.

Zuk, irakurle, zer sentitzen duzu, bi mutilen aurrean, bata Donostiarra, beste Madrilekoa, elkarri «¿Qué dices, tío?» esaten ari direnean? Zure euskal belarrietatik ez dituzu bi horiek oso antzeko aurkitzen?

6.- Euskaldunok karnetik gabe mundutik

Udako kanpingetan, bidaietan, ingeleseko ikastaroetan espainol edo frantsesizat hartzen gaituzte geografia zabalean. Orain pare bat urte, Gotzon eta biok frantseseko ikastaroan girela, Royan herrian, gazte madrileño bat hurbildu zitzaigun esanez, «Menos mal, por lo menos somos tres». Gotzon adiskideak, «¡No! estás sólo!» erantzun zion.

Garcla garen alderdi, partidu nahiz taldeko, Euskal Herriko sentitzen bagara, geure N.A.N. (karneta) inprimatu behar dugu, Greziatik datorkigun kultura unibertsalaz jantzirik munduan euskaldun izatea aski bilaka dadin, espainolek eta frantsesek eskutik hartu gabe.

Juan Luis Goikoetxea